



Ikerketak

Ikasle hasiberriei euskara irakasteko materialak (I): Hiru mugarri gaitasun komunikatiboa jomuga

Joseba Ezeiza

Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Kurrikuluak (HEOK) –Hizkuntzen Irakaskuntzarako Europako Marko Bateratuak, bezalaxe– argi utzi nahi izan du ezin dela hizkuntzak irakasteko metodo bat eta bakarra gomendatu (HEOK, 1999: 83). Rod Ellis adituak ere ondorio bera atera du egin berri duen txosten tekniko batean (Ellis, 2005). Haatik, gaur egun, erro sendoak ditu ideia batek: hizkuntza, areago da komunikazioa, egiturazko sistema bat baino.

Aintzatespen honek eztabaida korapilatsuak barneratzen ditu; eta ez gara horiek askatzen hasiko hemen. Baina badu ondorio bat hizkuntzen irakaskuntzarako, curriculum modernoek bere egin dutena: ikuspegi estrukturaletik ikuspegi komunikatiborako urratsak eman beharra, sintesi berri eta dinamiko bat helburu (HEOK, 1999: 17). Ildo horretan, zera gomendatu zuen HEOK-ak: urrats batzuk eman beharra “ezagutzatik erabilerara”, “sistema linguistikotik sistema analitikora”, “produktutik prozesura”, “esalditik testura eta pragmatikara”, “zuzentasunetik egokitasunera” eta, azken batean, “gaitasun linguistikotik gaitasun komunikatibora”.

Ikerketa-lan honetan aztertu nahi izan dugu nola jaso diren ideia hauek euskara hasiberriei irakasteko materialetan. Horretarako, HEOKaren itzalean argitara eman diren hiru ikasmaterial aztertu ditugu: 48 jarduera hautatu ditugu liburuko; eta bakoitzari 8 aldagai aztertzen dituen protokolo bat aplikatu diogu.

Artikulu honetan ikerketa horren emaitza kuantitatibo eta kualitatibo nagusiak jaso dira. Datu horiek zera erakusten dute: aztertutako hiru ikasmaterialak puntu ezberdinetan kokatzen direla HEOK-ak gaitasun linguistikotik gaitasun komunikatibora definitu zuen lerroan.

Beraz, hiru material hauek bide horretan nolabaiteko continuum bat eratzen duten arren, ezin esan daiteke erabat lortu dutenik HEOK-ak aldarrikatzen duen ikuspegi estrukturalaren eta ikuspegi komunikatiboaren arteko sintesi berri eta dinamikoa (HEOK, 1999: 17). Haatik, ezin uka daiteke bat egite hori ez dagoela urrun; hori pentsarazten digute, behintzat, bildutako datuek.

0. Hizkuntzari buruzko ikuspegia hasiberrientzako ikasmaterialetan: abiapuntua eta jomuga

Hizkuntza zer den galderari erantzun beharra ez da erraza; ez ikuspegi teorikotik, ezta ikuspegi praktikotik ere. HEOK-ak ondo islatzen du zailtasun hau bigarren hizkuntzaren jabe egin nahi duen ikasleak zer ikasten duen zehazten saiatzen denean. Hurbilpen gisa bi erreferentzia puntu baliatzen ditu: lehenak hizkuntzaren alderdi estrukturala azpimarratuko luke (hizkuntza sistema bezala); eta, bigarrenak, komunikazioarena (hizkuntzaren osagai pragmatikoari dagokiona).

Hizkuntz arauen, hiztegiaren eta egituraren ezagutza beharrezko baldintza da komunikaziorako; baina, ez da nahikoa. Komunikazioa eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da hizkuntza erabilerarako arauak ezagutzea; zenbait forma linguistiko halako egoeretan, halako pertsonekin eta komunikazio-xedea kontuan izanik erabiltzen jakitea (HEOK, 1999: 17).

Bi alderdi hauen arteko harremanari buruz zera dio aurrerago:

Hizkuntzaren baitan alde batetik sistema eta bestetik komunikazioa bereiztean, pentsa daiteke komunikazioan erabiltzen den halako entitate bat dela hizkuntza, eta gauza bat dela hizkuntza (sistema) eta bestea erabilera. Erabilera deitzen diogunaren eremu handi bat, ordea, hizkuntza beraren zati da, hautazko zeinuen sistemaren zati. Bi elementuak elkarloturik daude, beraz, eta hizkuntza komunikaziorako sistema dela esan daiteke; zehazkiago, kontestu sozialetan komunikaziorako erabiltzen den sistema (HEOK, 1999: 17).

Hizkuntzari buruzko bi osagaiok hizkuntzaren irakaskuntzan integratzeko moduari buruz hauxe da HEOK-ak proposatzen duena:

Bi ikuspegiaren arteko lotura azaltzeko, egokia dugu, lehen momentuan “*continuum*”aren irudia erabiltzea. Hala, lehen puntu batez irudikatzen zena orain lerro batez adieraziko da. Eta ikaskuntza eta irakaskuntza, esaterako, lehen lerro horretan zehar mugituko dira, batzuetan mutur batetik hurbilago eta besteetan urrunago, baina beti biak erreferente izanik. Bigarren momentuan, berriz, harreman dialektikoan ipini beharko ditugu, sintesi berri eta dinamiko bat helburu, berez kontrajarriak diruditen osagaiak (tesia eta antitesia): ezagutza eta erabilera, ezagutza formala eta ezagutza instrumentala, emaitza eta prozesua... (HEOK, 1999: 17).

Delako “*continuum*” hori hainbat ardatzetan xehekatzen du HEOK-ak; eta, proposatzen du, jardunbide didaktikoa honako dikotomien arabera aztertzea: ezagutza vs. erabilera; sistema linguistiko sintetikoa vs. sistema linguistiko analitikoa; produktua vs. prozesua; esaldia vs. testua eta pragmatika; zuzentasuna vs. egokitasuna; eta, gaitasun linguistikotik gaitasun komunikatibora.

Gaur egun hainbat dira mota honetako eskema dikotomikoak gainditu beharra aldarrikatzen duten ahotsak (Van Lier, 1996; Bastardas, 2003; Ezeiza, 2006b); baina, gai hori beste baterako utzita, hauxe da lan honen bidez jakin nahi izan duguna: balizko “*continuum*” horien zein puntutan kokatzen diren HEOK indarrean jarri denez geroztik argitara emandako ikasmaterialak; eta, aldi berean, ea material horietan antzeman daitekeen HEOK-ak bigarren aldi baterako aurreikusten duen “sintesi” dialektiko horren zantzurik.

Mahaigaineratu nahi izan dugun galdera korapilatsua da, inondik ere; erantzunak, bestalde, ez dirudi berehalakoa. Lanari ekiteko, hasiberrirentzako materialak aztertzen jarri gara. HEOK indarrean dagoenez geroztik, hasiberrirentzako hiru ikasmaterial eman dira argitara EAEn eskuliburu moduan:

- **AISA:** (Gaintza, A. eta Benitez, B., 2003. HABE). Egileen arabera, euskara ikasteko oinarri-oinarrizko materiala da hau; atzerritik datozeinei harrera-ikastaroak eskaintzeko pentsatua. Proposatzen duen metodologia *eguneroko bizimoduan egiten ditugun ekintzak eta jarduerak ikasgelan gauzatzean datza*. Lau liburukitan dago antolatuta; bakoitzean, bost unitate daude. Ikaslearentzako lan-koadernoetz gain, 2 bideo-zinta, irakaslearen liburuak (interneten) eta hiztegi eleanitza ere badakartza.
- **ADITU:** (Zallo, E. eta Oar-Arteta, A., 2004. Labayru Ikastegia). Material hau pentsatuta dago euskarara lehenengoz hurreratzen diren ikasleentzat zein euskara ikasten ari direnentzat, baina komunikaziorako oinarriak finkatu gabe dituztenentzat. Egileen arabera, ikasmaterial honek HEOKari erantzuten dio eta taldean zein bakarka erabil liteke. Hiru osagai ditu: ikaslearen lan-koadernoak, audio CD bat, eta irakaslearen liburuak.
- **OSTALARITZA:** (Elhuyar Aholkularitza, 2005. HABE). Egileen arabera, ikasmaterial honek taberna eta jatetxeetako eguneroko komunikazioa lantzeko oinarriko baliabideak eskaintzen ditu, eta, bakarka zein taldean lan egiteko balio dezake. Bi liburukitan antolatuta eskaintzen da: lehenean, tabernetako egoerak lantzen dira; bigarrenean, jatetxeetakoak. Liburuek CD bana dute eta zuzenketarako gako guztiak barne dituzte.

Lan hau egiteko esku-liburu bakoitzeko 48 jarduera aztertu dira xehe-xehe. Jarduera horiek ausaz hautatu dira, behin liburuak lau ataletan banatu ondoren: lehen laurdenetik 12 jarduera hautatu ziren; bigarren laurdenetik beste 12; hirugarrenetik beste 12; eta laugarrenetik, azken 12ak.

Jarduera horietako bakoitzari sei aldagai aztertzen dituen protokolo bat aplikatu zaie. Hona hemen, modu eskematikoan, aldagai horien zerrenda:

- 1 *Ikaskuntzaren aldagai pertsonalak*: ikaslearen inplikazio pertsonala; ikaskuntza-estiloak; ikasleen nortasunarekiko sentikortasuna; etab.
- 2 *Ikaskuntzaren aldagai sozialak*: ikaslearen identitate soziala; ikasgela barruko harreman-sarea eta talde-dinamika; kultura-arteko prozesuak; dinamika soziala eta ikaskuntza: lankidetzak; etab.
- 3 *Testuinguruko aldagaiak*: ikusizko osagaiak; diskurtsoaren egoera eta komunikazio-gaiak; komunikazioaren xedea; ikaskuntzarako baliabideak; etab.
- 4 *Komunikaziorako eta ikaskuntzarako eragiketak*: eragiketa komunikatiboak; Ikaskuntzarako eragiketak; eragiketa kognitibo eta linguistikoa; etab.
- 5 *Hizkuntza jarduerak komunikatiboak*: ahozkoaren ulermena; idatzia- ren ulermena; idazmena; ahozkoaren ekoizpen orokorra eta elkarre- rragina; etab.
- 6 *Hizkuntza-laginak eta ikasleen ekoizpenak*: emandako diskurtsoa, sor- tutakoa eta bitartekoa; baliabideak eta euskarriak; langai hartzen diren unitate linguistikoa; hizkuntza-laginen trataera; etab.
- 7 *Gaitasunaren osagaiak*: osagai gramatikala, osagai diskurtsibo-tes- tuala; osagai funtzionala, osagai soziokulturala; eta osagai lexiko- -semantikoa; etab.
- 8 *Estrategiak*: ikaskuntza-estrategiak eta komunikazio-estrategiak; estrategien lanketarako bideak; etab.

Protokoloaren garapena eta balioduntzea Ernesto Martin Peris (Pompeu Fabra Unibertsitatea) eta Marta Baralo (Antonio de Nebrija Unibertsitatea) aditu ezagunen gidaritzapean egin da ikerketa-egitasmo zabalago baten testuinguruan. Galdetegiaren oinarrien eta ontze-proze- suaren inguruko xehetasunak aurki kontsultatu ahal izango dira, dagoz- kion txostenak guztiz prest daudenean (Ezeiza, 2006a eta 2006b).

Bien bitartean, aurreratuko dugu, besteak beste, jarraian zerrendaturik datozen lanak hartu direla kontuan aztertu ditugun zortzi aldagaiak edu- kiz hornitzeko erreferentzia gisa: Alderson (2002); Areizaga (1995 eta 2002); Bachman eta Palmer (1996); Breen eta Candlin (2001); Buck (2001); Cushing (2002); Carter eta Nunan (2001); Doughty eta Long (2003); Dörnyei eta Murphy (2005); Europako Kontseilua (1996); Escandell (1996 eta 2006); Ezeiza (2004 eta 2005); Frodesen eta Holten (2005); Gutiérrez (2002); Hinkel (2005); Hutchinson (1996); Jorba et al. (2000); Lantolf (2000, 2001, eta 2004); Larsen-Freeman (2003); Leaver, Hearman eta Shekman (2005); Littlejohn (1992); Llobera (1995-a, 1995-b eta 1998); Long (2006); Luoma (2004); Macaro (2003); McGrath (2002); McGroarthy eta Taguchi (2005); McLaren, Madrid eta Bueno (2005); Maldonado (2003); Martín Peris (1996); Moran (2002); Nunan (2003); Oxford (1990); Purpura (2003); Richards eta Renandya (2002);

Sánchez Lobato eta Santos Gargallo (2003); Savignon (1983, 1993, 2004 eta 2005) eta Tomlinson (1998 eta 2003).

Azterketa honetan lortutako daturik adierazgarrienak eranskinean jasotako zortzi tauletan daude xehekatuta, aldagaiz aldagai. Datuok ehuneko-tan eskainiko ditugu. Ehuneko horiek zera adierazten dute: aztertutako en artetik zenbat jarduerak erakusten duten behatutako ezaugarria. Taularen azkeneko zutabea, hiru ikasmaterialen batez bestekoen datuak ere jasoko ditugu.

Hurrengo lerroetan, datuen behin-behineko irakurketa bat egingo dugu; beti ere, HEOK-ak eskaintzen dituen irizpideei jarraikiz (ikus HEOK, 17-20). Hasi aurretik, ordea, ohar bat eman beharra dago: hemen jasota dauden iruzkinak lortutako daturik sendoenei eta joera sistematikoenei dagozkie soilik. Izan ere, lan honen asmoa ez da berehalako ondorioak ateratzea edota gaia agortzea; gogoetarako ideia batzuk mahaigaineratzea baino.

Bestalde, laburtasuna lehenetsi dugu beste ezeren aurretik; horrekin, zerbait galduko genuen noski. Edozein modutan, zehaztasun gehiago behar dituenak, datuen tauletara jo besterik ez du: taula horietan xehetasun erantsi asko daude-eta, hemen komentatuko ez direnak.

Ohar hauek eginda hasteko moduan gaude lortutako datu eta emaitzarik azpimarragarrienak aurkeztu eta komentatzeko.

1. Ezagutzatik erabilerara

Eskuarki, hizkuntza ezagutzea ez da nahikoa hizkuntza hori komunikazio-egoeretan erabiltzeko: izan ere, arauen azalpenak eta ariketa kontrolatuek ez diete ikasle gehienei behar bezala laguntzen ezagutzak erabiltzeko trebetasunak lantzen. Horren harira zera dio HEOK-ak:

“lehen batik bat ezagutzaz hitz egiten bazen, orain erabileraz ere hitz egin beharko da; lehen ezagutza bazen nagusi, orain ezagutza instrumentala ere hartu beharko da kontuan”.

Zein da aztertutako materialen kokalekua bi mutur hauen artean zabal-tzen den “continuum” horretan? Batez besteko datu orokorretatik hauxe ondorioztatu ahal da:

- *Aztertutako materialetan, estilo analitikoa da nagusi*: “hizkuntzari buruz jakiteak” pisu handiago du “hizkuntza erabiltzen ikasteak” baino. Eskuarki, ezagutza linguistikoko formala eraikitzea da materialen jomuga nagusia eta ez hainbeste, komunikazioa bera (“Aisa” salbuespen agerikoa da, hala ere).
- *Oro har, elkarreraginari oso toki mugatua aitortzen zaio material hauen proposamenetan*. Jarduera gehienak bakarka edota irakaslearen gidaritzapean ebatzeko modukoak dira (%87); lankidetzara ere jarduera gutxi eskatzen dute (%18).
- *Ildo beretik, material hauek praktika komunikatiborako aukera gutxi bilatzen dituzte*. Gehienbat, praktika mekanikoa, praktika gidatua eta

praktika sasi-komunikatiboa sustatuko dute (%82,6). Praktika komunikatiboa proposatzen duten jarduerak %12 baino ez dira.

- *Hala ere, hasiak dira aintzat hartzen ikasleak protagonismo nabarmenagoa behar duela izan: jardueren %40,6k ikaslearen aurreko esperientziak eta ezagutzak baliatzen dituzte; jardueren %39,3k, bestalde, ikasleei ekarpen pertsonalen bat egiteko eskatzen diete. Datuok pentsarazten digute, oro har, garai batean baino ikasle aktiboagoa bilatzen dela material hauetan. Hori bai, ikaslearen protagonismo hori gehiago ustiatzen da “ezagutza” zabaltze aldera, “erabilera” sustatze aldera baino.*

Ikasmaterial bakoitzari dagozkion emaitzak banan-banan aztertuta, irudi xeheago bat azaltzen zaigu, ezagutzatik erabilerarako ibilbidean izango luketen tokiari buruz:

- “Ostalaritza” eskuliburua ezagutzaren ardatzera lerratzen da nabarmen.
- “Aisa”k, aitzitik, erabilerari begiratuko lioke, gehienbat.
- “Aditu”, bestalde, tartean koka liteke. Material honen jomuga nagusia “ezagutza” da, zalantzarik gabe. Alabaina, ez da mugatzen ikasleari ereduak eta arauak azaltzera eta beroriek praktikatzeko proposamenak egitera: ikaslea hizkuntza-laginak “hustutzen” jarriko du irakatsi nahi diren datu linguistikoen bila.

Horra hor zertan den ezagutzatik erabilerarako bidean hiru materialok egiten duten apustua.

2. Sistema linguistiko sintetikotik sistema linguistiko analitikora

HEOK-ak ondo jasotzen duenez, *ikuspegi sintetikoaren arabera unitate linguistikoz osaturiko corpus bat izango litzateke hizkuntza (...); sistema linguistikoa prozesatzeko bide analitikoaren arabera, ikasleari bloke naturalak eskaintzen zaizkio (funtzioak, testuak...). Horietan islatuko liriteke forma linguistikoen erabilera errealak.*

Hizkuntza prozesatzeko bi bide horien abantailak eta arriskuak kontuan izanda, HEOK-ak gomendatzen du bi alderdiak kontuan hartzea: *bata komunikazioari dagokiona (informazioaren elkartrukea, hizkuntza komunikazio-egoera errealean erabiltzea...) eta bestea hizkuntza sistema eskuratzearena (jarduera komunikatiboak bete ahal izateko sortzen diren hutsuneak gainditzeko sistema linguistikoaren zatiak aztertzea).*

Zein da hasiberrientzako materialek egiten duten hautua? Bildutako datuek hauxe diote:

- *Materialen egileak jabetzen dira hizkuntza testuinguraturik aurkezteak duen garrantziaz. Izan ere, hiru ikasmaterialek irudiak baliatzen dituzte sarri samar: argazkiak (%35,3) eta marrazkiak (%25,3). Irudiok, gehienbat, “ekintzak”, “gertakariak” edota “elkarreragin sozialak” erakusten dituzte (%39,6); komunikaziorako markoak, alegia. Irudi dinamikoak (bideoan edo, jasoak), “Aisa” materialak eskaintzen ditu soil-soilik.*

- *Material hauen proposamenetan tokia duten komunikazio-eremuen artean esparru publikoa da ugariena: ekintza publikoak, laneko egoerak; erakundeekiko harremanak...* Komunikazio-eremu pertsonalak ere, badu bere pisua; “Aditu” eta “Aisa” materialetan, batez ere.
- *Material hauetan antzematen da hizkuntza “bloke naturala” aurkezteko nolabaiteko ahalegina.* Izan ere, jarduera askok dute euskarri elkarriketa grabaturen bat (%19,7k) edota benetako dokumentuen erara itxuratutako testu idatziren bat (%14,7k). Edozein modutan, ez dira gutxi euskarri gisa hitz, egitura edota esapide solteen zerrendak baliatzen dituzten jarduerak (% 25,3). Bestalde, baliatzen diren ia dokumentu guztiak artifizialak dira: oso bakanak dira material hauetan aurkituko ditugun dokumentu errealek; eta horiek “Aisa” materialetan aurkituko ditugu soilik.
- *Hala ere, “bloke naturalak” deitu ditugun horiek ikuspegi formaletik jorratzen dira gehienbat.* Hauxe da datuek esaten digutena: jarduera gehienek, imitazioa sustatzen dutela (%70), beti ere, arretagunea, hiztegian edo gramatikan jarrita eta jarduera gehienak hiztegiaren edota gramatikaren alderdi horiek gogoan gordetzen laguntzea dute jomuga; (%60,6).
- *Bestalde, trebetasun linguistikoei dagozkien datuetara jotzen badugu, ikusiko dugu berauek barne hartzen duten jarduera gehienek, ia beti, esaldi-mailako osagai linguistikoen mailara eramaten dutela hizkuntzaren lanketa.* Trebetasunek, berez, jarduera askotan dute tokia: jardueren %24,3k entzumena hartzen dute barne; %23,7k, irakurmena lantzen dute; eta jardueren %27,7k idazmena sustatzen dute. Mintzamenak, azkenik, toki mugatuagoa du: %17. Baina jarduera horietako gehienak honako kategoriatan sartzen dira: sentsibilizazio-jarduerak; egitura eta hitz jakinen esanahia argitzekoak; lexikoa edo gramatika praktikatzekoak eta. Bestalde, jarduera gehienek ikaslea oso rol “pasiboetan” ezartzen dute (testuetan datu eta forma zehatzak bilatu; zerrendak egin; etab.).

Ikasmaterialak banan-banan hartuta alde hauek ikusiko ditugu:

- “Ostalaritza” materialek ikuspegi sintetikoa baliatzen dute soilik. Egia da hizkuntza “bloke naturala” aurkezteko nolabaiteko ahalegina antzeman daitekeela ikastunitateen hasierako elkarriketetan. Baina, alde batetik, elkarriketa hauek artifizialak dira, batetik; eta, bestetik, esaldi mailako alderdi formaleta mugatzen dira sistematikoki direlako testuak ustiatzeko proposatzen diren jarduerak.
- “Aditu” materialek ikuspegi sintetikoa dute abiapuntu; baina, tartekatzen dituzte planteamendu analitikoan oinarritutako jarduera batzuk ere. Bi ikuspegiok gutxitan agertzen dira elkar harturik eta, edozein modutan ere, eskuliburu honetan nekez aurkituko dugu jarduera bat, modu batera edo bestera, alderdi formalei zuzenduta ez dagoena.
- “Aisa”, aitzitik, planteamendu analitikoaren aldeko apustuaren adibidea izan liteke. Ikasmaterial honetan aurkituko ditugun jarduera gehie-

nek marko komunikatibo irekiak eskainiko dizkiote ikasleari (izan daiteke dokumentu bat abiapuntu hartuta; izan daiteke, eguneroko bizitzako egoera edota gai bat hizpide hartuta; etab.). Marko komunikatibo horiek hizkuntzaren osagai pragmatikoak, semantikoak eta gramatikalak “biltzeko” gune egiten dira, eskaintzen diren taulak eta eskemak lagun. Hala ere, ez zaio ikasleari argibide askorik ematen egin beharreko analisi-motari buruz.

3. Produktutik prozesura

Irakaskuntza tradizionalen arreta berezia eskaini izan zaio ikasleek bukatu eta osatu duten ekoizpenari (produktuari, alegia) eta bigarren mailan geratu izan ohi da ikasleek ekoizpen horretara iristeko egin behar izan duten bidea. HEOK-aren arabera, berriz, *helmugak adinako garrantzia du bideak berak eta bidegintza horretan ezinbestekoa da ikaslearen partehartze eta protagonismoa.*

Gorago esan dugunez, hasiberrientzako materialetan hartzen dira aintzat ikasleen aurreko esperientziak (% 40,6) eta sustatzen da, halaber, ikasleek ekarpen pertsonalak egin ditzaten (%39,3). Baina, hortik aparte, datu gehienek produktuan ardaztutako planteamendu baten aldeko joera garbia erakusten dute.

- *Ikasleen esku jartzen diren euskarrien ahalbide komunikatiboak ez dira askorik balioesten.* Testuen %50,6k ikasleei eduki linguistikoak aurkeztea dute zeregin nagusi.
- *Trebetasunak barne hartzen dituzten jarduerak ere alderdi formalak dituzte jomuga.* Entzumena eta irakurmena barne hartzen duten jardueretan ikaslearen egiteko nagusia hauxe izango da: ikasi beharreko hitz eta egiturak antzematea eta berauen esanahia argitzea. Idazkuntza-lana hitzak eta esapideak zerrendatzera mugatuko da.

Mintzamen jarduerak bestelakoak dirudite; baina, esan beharra dago trebetasun honi begirako jarduera ia guztiak “Aisa” ikasmaterialetan aurkituko ditugula. Hortaz, ezin ditugu datuok joera orokorren adierazle gisa hartu.

- *Material hauetan, ikaskuntza analitikoa eta kontzeptuala bultzatzen da nagusiki.* Ariketarik ohikoenak fitxak, esaldiak edo testuak osatzekoak izango dira (%50). Jarduera gehienak (%87) bakarka pentsatuak daude eta jokoan jartzen dituzten aldagai kognitibo nagusiak hauexek dira: errepikapena edota imitazioa (%70); gogoan gordetzea (%50,6); arauak eta ereduak aztertzea eta aplikatzea (%46,6); eta adibide edota ereduetan datu linguistikoak antzematea (%34). Produktuan ardaztuak, beraz.
- *Ikaskuntzaren laguntzeko eskaintzen diren tresnak ere mugatuak dira.* Ikaskuntzaren erregulazioa bi eragiketatar mugatuko da: helburuen adierazpena (%39,6) eta praktika kontrolaturako aukerak eskaintzera (%52); funtsezko beste eragiketa batzuek –planifikazioarekin edota ebaluazioarekin zerikusia dutenak, kasu– ez dute tokirik material hauetan.

Bestalde, lantzen diren eragiketa kognitiboak bi baino ez dira: esanahia igartzea (%34) eta zerrendak egitea (%38). Ildo berean, bi estrategia mota baino ez dira sistematikoki jorratzen: oroimen-estrategiak (%39) eta kontrol-estrategiak (%39,7). Ageriko denez, ikaskuntza-prozesua ez da askorik xehatzen ikasmaterial hauen proposamenetan.

Edozein modutan beraien artean antzematen dira nolabaiteko aldeak, arlo honetan ere.

- “Ostalaritza” ikasmaterialek buruz ikasten iaioak diren ikasleentzat pentsatua dirudite; auto-ikaskuntzarako pentsatuago ematen dute taldean ustiatzeko baino. Ikasleari kanpoko behatzailearen rola egozten diote. Hauxe izango da, funtsean, bere lana: emandako eruedetan datu linguistikoak antzematea eta gogoan gordetzea alde aurretik finkatutako eskema gramatikal eta lexikoen arabera. Bestalde, trebetasunen trataerari dagozkion datuak aztertuta, ikusiko dugu material honetan ulermen- eta ekoizpen-prozesuak ez direla xehatzen eta azpi-trebetasunik ere ez direla berariaz lantzen.

Azkenik, ikaskuntzaren erregulazioarekin zerikusia duten aldagaiei begiratuta, ikusiko dugu praktika mekanikoa dela “Ostalaritza” materialek sistematikoki jorratzen duten bakarra. Zalantzarik gabe, produktuan ardaztutako planteamendu baten aurrean gaude.

- “Aditu”-k ikasle analitikoentzat egina dirudi; taldeko ikaskuntza tradizionalerako pentsatua. Jomuga nagusia hauxe du: ikasleari laguntzea baliabide linguistikoen bilatze-, identifikazio- eta biltze-lanean. Zeregin horretan gida bat eskaintzen dio “Aditu”-k ikasleari; adibidez, entzute-lana hainbat urratsetan xehatzen du; irakurmenari lotutako hainbat azpi-trebetasun ere sustatzen ditu –helburuak finkatu (%12), ideia nagusiak identifikatu (%8), ulertutakoa egiaztatu (%16); etab.–; ekoizpen-jardueren kasuan planifikazio-lana bultzatuko du zenbaitetan (%8).

Onartu beharra dago joera hori ez dela guztiz sistematikoa; baina, erakusten du prozesuarekiko nolabaiteko sentiberatasuna. Hala ere, ikaskuntzaren kudeaketarako baliabideen aldetik, “Aditu” ez da oso xehea: praktika kontrolatua da sistematizatzen duen ikaskuntzarako eragiketa ia bakarra: gutxitan bistaratzen ditu helburuak; ez du aurrezagutzen aktibazio bultzatzen; emaitzen ebaluazioari ere ez dio tarte nabarmenik egiten. Honenbestez, esan liteke “Aditu”-k ere “produktua” lehenesten duen planteamendu baten alde egiten duela; baina, “Ostalaritza” ikasmaterialen aldean, ikasleari zeregin aktiboagoa egozten diola.

- “Aisa”-k estilo komunikatiboa duten ikasleentzat pentsatua dirudi. Oro har, esan genezake, “taldeko ikaskuntza elkarreragilerako pentsatua dagoela. “Aisa” materialaren ahaleginik nagusiena hauxe da: dinamika parte hartzailea jomuga, komunikazioa eta ikaskuntza aktiboa ahalbidetu dezaketen baliabideak eskaintzea.

Planteamendu horrek informazioaren kudeaketarako oinarritzko eragiketa nagusi guztiak barne hartzen ditu: informazioa ulertu, eskuratu, azter-

tu, trukatu, etab. Eragiketa kognitibo-linguistikoen aldetik ere (zerrendatu, alderatu, azaldu...) aberatsa da. Oso kontuan hartzen ditu, halaber, trebetasun linguistikoek barne hartzen dituzten azpi-trebetasunak. Bestalde, ikaskuntza errazteko ahalegin nabarmena egiten da material honetan: modu sistematikoan aurkezten dira helburuak; nork bere ahaltzideei neurri hartzeko proposamenak ere egiten dira eta, jardueren amaieran, ebaluazioa ere bideratzen du, noizbait. Horrenbestez, hiruretan hauxe da prozesuari arreta handiena eskaintzen dion proposamena.

4. Esalditik testura eta pragmatikara, zuzentasunetik egokitasunerako bidean

HEOK-ak ondo dioenez, azken urteotan gero eta gehiago ari dira zabal-tzen hizkuntzalaritzaren mugak: lehenbizi “hitza” izan zen ardatz; “per-pausa”, geroago; “testua” eta “testualitatea” ezagutu ditugu duela ez hainbeste; “pragmatika”-k azkenik, komunikazioaren eremuan funtsez-koak diren kontzeptu hainbat mahaigaineratu ditu: “diskurtsoa”, “hizke-tako egintzak”, “kortesia”, etab. Horrela, bada, bi ideia joan dira nagusitzen: *a) badira zenbait hizkuntza fenomeno gramatikaren kontzep-ziotik esplikaziorik ez dutenak (testualitatea) eta b) gaur egun ezin da mugatu gaitasun linguistikoaren azterketara, baizik eta eguneroko komu-nikazioan erabiltzen den hizkuntzara jaitsi behar da (pragmatika).*

Horrenbestez, HEOK-ak ulertu du *hizkuntz komunikazioak hiru osagai dituela: esaldia, testua eta testuingurua. Ondorioz, hiru baldintza bete beharko ditu hizkuntzaren erabilera eraginkorrak: zuzena izan beharko du (esaldiaren gramatikari dagokiona), testuala (testualitateari dago-kion modukoa) eta pragmatikoa (testuinguruari dagokiona).*

Ildo horretan, HEOK-ak zera proposatzen du: zuzentasunaren ikuspegi hertsia zabaltzea eta beroni beste dimentsio bat egotea: egokitasunera.

Zein da alderdi hauek hasiberrientzako materialetan egotzen zaien trata-era? Datu batzuk emanak ditugu aurreko ataletan ere, baina saia gaitezen guztiak hemen sistematizatzen.

- Materialen egileak jabetzen dira testuingurutzak duen garrantziaz, ikaskuntza laguntzeko baliabide gisa. Horretarako, batez ere, irudiak baliatzen dituzte. Lehenago esana dugun moduan, irudien artean, marrazkiak eta argazkiak oso parekatuak azaltzen dira (%25,3 eta %35,3, hurrenez hurren); irudiok, gehienbat, “ekintzak”, “gertakariak” edota “elkarreragin sozialak” erakusten dituzte (%39,6).

Diskurtso-mailako lanketaren parte handi bat zeharbidez egiten da: jar-duerek laguntzen dituzten marrazki, eszenatoki eta marko komunikati-boen bidez (% 24) eta lanerako eskaintzen dituzten eskema, taula eta diagramen bidez (%14,7).

- *Material hauek, oro har, jasotzen dituzte ikasgelan nolabaiteko diskur-tso-eremua zabaltzeko tresnak.* Maizenik sustatzen den diskurtso-ere-duak zantzu pedagogiko nabarmena du: jarduera gehienek fitxak edota testuak osatzea eskatzen dute (%50,6); eta, gehienbat, imitazioa (%70), arauen aurkezpena edota praktika (%60,6), eta memorian gor-detzea (% 46,6) bilatzen dute.

- *Testu-moten aldetik bilatzen da nolabaiteko dibertsifikazioa.* Testu-mota nagusia elkarrizketa da (% 30,7), baina azalpen-testuak ere badu nolabaiteko lekua (%16,7). Deskribapenak eta instrukzioak oso toki mugatua dute hasiberrientzako materialotan. Narrazioa ez da ia jorratzen, elkarrizketen bidez ez bada. Bestalde, jardueren %16k testu-mailako lanketa barne hartzen dute
- *Hala ere, testu gehienak forma linguistikoaren erroale dira eta edukiak aurkezteko edota lantzeko daude pentsatuak.* Horrela, testu hauek ustiatzeko bi jarduera mota proposatzen dira nagusiki: oharrak hartzea eta kopiatzea (%37) eta ezaugarri formalak aztertzea (%30). Esanahiari begirako jardueren kopurua oso txikia da: %14,7 batez beste. Badaude tarteko proposamenak ere: testuak eta irudiak lotzea eskatzen dutenak edota testuetan datu jakinak bilatzea eskatzen dutenak; baina, ikaslearen ekoizpenak, hitzen edota enuntziatuaren zerrendetan mamituko dira (%32)
- *Fonetika, fonologia eta ortoepia ez dira berariaz lantzen.* Hizkuntzaren maila hau bazterrean gelditzen da hiru materialetan. Ortografia ere ez da kasik jorratzen. Zenbait ikaslek –atzeritarrek, gehienbat– arlo hauetan izan ahal dituzten arazoak kontuan izanik, huts hau nola bete pentsatzen hasi beharko dugu seguruenik.

Edonola ere, “Ostalaritza”-k, “Aiditu”-k eta “Aisa”-k, banaka hartuta, badituzte aldeak:

- “Ostalaritza” Ikasmaterialak lagin idatziak zein ahozkoak eskaintzen dizkio ikasleari. Lagin idatziak bi eratakoak dira: hitz, esapide eta egituren zerrendak (%60) eta ahozko grabazioen transkribapenak (%15). Unitate bakoitzean elkarrizketa simulatuaren grabazio bat edo bi eskaintzen dira eta, batez beste, jardueren %15 oinarritzen dira elkarrizketa horien lanketan. Eskaintzen diren testuak elkarrengatik (elkarrizketak) eta preskriptiboak (instrukzioak, prozesuak...) dira, gehienak; unitate bakoitzaren amaieran, gizaritari buruzko eta kulturari buruzko xehetasunak ematen duten azalpen testu bat ere txertatzen da sistematikoki.

Material linguistiko horren guztiaren funtzio didaktiko nagusiak bi izango dira: forma linguistikoak eta lexikoa aurkeztea; eta komunikazio-ereduak erakustea. Bigarren funtzio hau laguntzeko, marko komunikatiboak irudikatzen dituzten irudiak eskaintzen dira maiz (%40). Hizkuntza laginen lanketa maila hainbatetan egingo da: testu-mailan (%20), enuntziatu funtzionalen maila (%25), perpausen mailan (%20) eta hitzen mailan (%35). Material linguistikoa lantzeko proposatzen diren bideak hauek dira: oharrak hartu eta kopiatu; hitzak (edo enuntziatuak) eta irudiak lotu; itzuli; eta buruz ikasi. Horrenbestez, ikasleak apenas sortu beharko du ezer: gehienez jota esaldi edota enuntziatu solteak itzuli beharko ditu (%15).

- “Aiditu”-k ere lagin idatziak zein ahozkoak eskaintzen dizkio ikasleari. Lagin idatziak bi eratakoak dira: hitz, esapide eta egituren zerrendak (%16) eta irakaskuntzarako berariaz prestatutako dokumentu idatziak (%44). Ahozko dokumentu gehienak simulazio antzeztuak dira (%36).

Tipologiaren aldetik, dokumentu gehienak elkarrizketak (%40) eta deskribapenak (%20) dira; tartean bada, dena den, azalpen-testuren bat ere (%8). Zerrenda eta dokumentu hauek bi eduki-mota helarazten dizkiote ikasleari: landu nahi diren forma linguistikoen erabileraren adibideak (%40); eta, elkarreragin komunikatiboen erakusgarriak (%24). Izan ere, “Aditu” ikasmaterialetan aurkituko ditugun hizkuntza-lagin ia guztien funtzio didaktikoa hauxe da: irakatsi nahi denaren “ereduak” eskaintzea.

Material linguistiko horren hustuketa egiteko, taulak, galderak edo osatu gabeko pasarteak eskaintzen zaizkie ikasleei. Berauek zera egin beharko dute: testuak arakatu eta, emandako irizpideei jarraikiz, oharrrak hartu edota ulertutakoaren berri eman pasarte laburren bidez. Lan honen emaitza hauxe izango da: hitzen edo enuntziatu laburren zerrendak (%36); eta testuen laburpen edo parafrasiak (%12). Horrenbestez, ikasleek hitzen eta perpausen mailan egingo dute lana areago, testuarenean baino.

- “Aisa” materialetan hizkuntza-unitate guztiak hartzen dira langai: diskurtsoa, testua, enuntziatuak eta hitzak; alderdi fonetikoa da kanpo gelditzen den bakarra. “Aisa”-k proposatzen dituen jarduera askoren ardatza eskemak, taulak edota zerrenda osatugabeak izango dira (%44).

Taula eta eskema horiek ikasgelako diskurtsoaren euskarri izango dira: ikasleak eduki mezudunaren bidez osatu eta hornitu beharko ditu diskurtso elkarreragile eta partehartzailearen bitartez. Beste jarduera kopuru handi batek (%44) dokumentu esanguratsuak izango dituzte euskarri: dokumentu idatziak (%20); zein ikus-entzunezkoak (%24). Horien artean, dokumentu-mota ugari aurkituko ditugu: besteak beste, enpresa-komunikazioarekin, komunikazio instituzionalarekin edota publizitatearekin zerikusia dutenak; testu-mota nagusia azalpenezkoa da.

- Testu hauek ustiatzeko proposatzen diren jarduera gehienak (%32) komunikatiboak dira; dokumentuok duten balio komunikatibo, sozial edota kulturala azpimarratzen dutenak, alegia (testuak interpretatu; testuak eta irudiak lotu; ulertutakoa beste era batera adierazi; etab). Taulen, eskemen eta testuen inguruan egindako jardueren emaitza enuntziatuen edota hitzen zerrenda esanguratsu bat izango da (%60), gehienetan. Perpaus, esapide eta hitz horiek izango dira ezagutza gramatikal, funtzional eta lexikoaren hornitzaile nagusiak “Aisa”-k baliatzen duen eredu didaktikoan.

5. Gaitasun linguistikotik gaitasun komunikatibora

Hizkuntzari buruzko ikuspegiaren inguruan egiten ari garen gainbegiratu honetan iritsi gara muinera: gaitasun linguistikotik gaitasun komunikatibora zabaltzen den ardatzera. Esana dugu dagoeneko hizkuntza ikastea *ez dela bakarrik esaldi zuzenak sortzen jakitea; hori ez ezik, esaldi horiek komunikazio-egintzetan nola erabili jakitea ere bada*. Ideia hone-tatik sortzen da, nolabait, gaitasun komunikatiboaren aldarrikapena.

HEOK-ak bere hartzen du aldarrikapen hori eta Canale eta Swain (1980) aditu ezagunek proposatutako eredu oinarrituta xehatzen ditu helduen

euskalduntzerako helburuak, edukiak eta ebaluaziorako irizpideak. Lan honetan, haatik, ez dugu eredu hori, baliatu; Bachman eta Palmer-ena (1996) baizik. Azken honi jarraikiz, bi ezagutza mota bereiztu ditugu: ezagutza pragmatikoa (soziokulturala eta funtzionala) eta hizkuntzaren antolamenduaren gainekoa (testuala eta linguistikoa); bi horiez gain, ezagutza estrategikoa hartu dugu aztergai.

Jakin nahi izan duguna hauxe da: ea HEOK-ak gaitasun komunikatiboaren alde egin duen apustuak izan al duen inolako eraginik hasiberrientzako materialetan. Datuek, oro har, erakusten dute baietz; izan ere, hasiberrientzako material hauetan igartzen da nolabaiteko estratifikazioa langai hartzen dituzten ezagutzei dagokienez. Lehenetasunak zein diren ere oso argi ikus daiteke datuetan.

- Ezagutza lexiko-semanticoa da gehienbat bultzatzen dena; alegia, hiztegia, sare semanticok, adierazle funtzionalen esapideak, etab. dira hasiberrientzako material hauetan lantzen diren edukiak. Izan ere, jardueren %52,7-k barne-hartzen dute ezagutza lexiko-semanticoa. Berau hornitu, zabaldu eta sendotzeko hiru teknika baliatzen dira nagusiki: irakaskuntza esplizitua (%17,3), bide induktiboa (%18) eta modu implizituan (%17,3).
- Ezagutza funtzionala ere sistematikoko sustatzen da. Alderdi hau jorratzen duten jardueren kopuruak (%39,8) hala ematen du aditzera. Jarduera hauetan esapide funtzionalak lantzen dira bereziki. Ezagutza funtzionala sustatzeko irakaskuntza esplizitua eta praktika gidatua baliatzen da gehienbat.
- Ezagutza gramatikalak –berez eta bakarrik– barne hartzen dituzten jardueren kopurua txikiagoa da. %30 egiten dute osagai gramatikala, huts-hutsean lantzen dituzten jarduerak. Alderdi gramatikalak lantzeko manipulazio-jarduerak proposatzen dira, gehienbat; arauen azalpena eta berauen aplikazioa gutxiagotan baliatzen da.
- Ezagutza soziokulturala eta ezagutza testuala jorratzen duten jardueren kopuruak txikiagoak dira nabarmen. %18 eta %14,7, hurrenez hurren.
- Estrategiak lantzeko berriazko jarduerarik ez dugu aurkitu, baina bai estrategia zehatzak baliatzea eskatzen duten jarduerak. Gehienbat, ikaskuntzarako estrategiak sustatzen dira: estrategia kognitiboak (%39,7) eta oroimen-estrategiak (%39):

Ikasmaterialek banan-banan hartuta hauek dira gaitasun komunikatiboaren ikuspegitik eskaintzen diguten irudia:

- “Ostalaritza” ikasmaterialetan gaitasunaren osagai nagusi guztiak jorratzen dira: osagai funtzionala (%50), osagai gramatikala (%30), osagai lexiko-semanticok (%20) eta osagai diskurtsiboa (%20). Osagaiok modu integratuan aurkezten dira elkarriketa simulatuen bidez, baina, gero, modu isolatu eta bananduan lantzen dira; bakoitza bere aldetik eta oso modu xehean. Horretarako, honako jardunbide didaktikoak baliatzen dira: irakaskuntza esplizitua (%50); arauen azalpena eta aplikazioa (%30); eta gogoan gordetzea (%20).

Osagai lexikoaren parte handi bat, hala ere, modu testuinguratuan lantzen da. Osagai sozio-kulturalak ere badu nolabaiteko tarte material hauetan (%10); ezagutza hau irakaskuntza esplizituaren bidez jorratzen da bereziki.

- “Aditu”-n ere gaitasunaren osagai nagusi guztiak jorratzen dira: ezagutza funtzionala (%44), ezagutza gramatikala (%44), ezagutza lexiko-semanticoa (%44) eta osagai diskurtsiboa (%16). Hiru materialetan hauxe da osagai gramatikalari tarte handiena eskaintzen diona eta, aldiz, osagai funtzional zein lexiko-semanticolari tarterik txikiena eskaintzen diona. “Aditu”-k badu beste berezitasun bat: hiru ikasmaterialeen artean, bera da ezagutza soziolinguistikoiari (%24) eta xede-hizkuntzari lotutako ezagutza kulturalari (%28) tarterik handiena eskaintzen diona.

Eduki gramatikalak, eduki soziokulturalak, eta eduki lexikoen parte bat (%20) modu esplizituan aurkeztu eta irakasten dira; eduki funtzionalak, testualak eta soziolinguistikoak, aldiz, modu inplizituan doaz integratuta (langai proposatzen diren dokumentuetan txertatuta, gehienbat). Gramatikaren lanketa bi eratara egiten da: jarduera mekanikoen bidez (%24) eta nolabaiteko testuinguru komunikatiboa eskaintzen duten jardueren bidez (%20).

- Zalantzarik gabe, esan daiteke “Aisa” materialek gaitasun komunikatiboaren garapen integral eta integratua bilatzen dutela. Horrek ez du esan nahi, gaitasun komunikatiboaren osagaien gaineko lanketa sistematizatzeari uko egiten zaionik. Izan ere, datuek besterik erakusten dute. Bildu ditugun datuen arabera hauek dira “Aisa” materialen lehen-tasunak: eredu honen arabera, gaitasun komunikatiboaren euskarri nagusia osagai lexiko-semanticoa da (%64).

Bigarren mailan, komunikazioaren alderdi pragmatikoak leudeke: ezagutza soziokulturala (%16) eta ezagutza funtzionala (%48). Eta, hirugarrenean, egiturazko osagaiak: ezagutza testuala (%8) eta ezagutza gramatikala (%16). Ikusten denagatik, oso eredu koherentea baliatzen du. Ezagutza lexiko-semanticoa bi eratara lantzen da: ataza komunikatiboen testuinguruan (%32) eta irakaskuntza esplizituaren bidez (%32). Ezagutza funtzionala irakaskuntza esplizituaren eta praktikaren bidez sustatzen da. Ezagutza gramatikala hainbat modutara jorratzen da: jarduera mekanikoen bidez, arauen azalpen eta praktikaren bidez eta jarduera komunikatibo egituratuen bitartez. Ezagutza soziokulturala, azkenik, ataza komunikatiboen testuinguruan barneratuta lantzen da. Oro har, ematen du “Aisa”-k nolabaiteko oreka bilatu nahi duela lanketa inplizituaren eta esplizituaren artean.

Osagai estrategikoari, trataera hau ematen diote hiru ikasmaterialek:

- “Ostalaritza” materialetan ez dugu komunikazio-estrategiak berariaz lantzeko proposamenik aurkitu; horretarako aukerak eskaintzen dituzten jarduerak ere ez ditugu ikusi aztertutakoan artean. Ikas-estrategiei dagokienez, bi dira sistematikoki sustatzen direnak: oroimen-estrategiak (%45) eta estrategia kognitiboak (%45). Lehen multzokoan artean

ugarienak hauek dira: hizkuntza-elementuak sailkatzea, ikasitakoa aztertzea eta berrikusketa egitea; bigarren multzokoen artean, beste hauek dira ugarienak: hizkuntza laginak behatzea; ikusi, irakurri edota entzundakoa erkatzea; eta, oharrak jasotzea.

- “Aditu” materialetan ez dugu aurkitu estrategia sozialen, planifikazio-estrategien edo ebaluazio-estrategien zantzu garbirik. Izan ere, material hauetan sistematikoki lantzen diren estrategiek zuzentasun gramatikala dute jomuga: izan ere, jardueren %56 kontrol-estrategia komunikatiboak sustatzen dituzte eta jardueren %64k monitorizatzea edo saiatzeko funtzionala hartzen dute barne. Oroimen-estrategiak ere jorratzen dira jardueretako batzuetan (%8). Edonola ere, osagai estrategikoa ez da modu esplizituan lantzen; arian-arian jorratzen da, jarduerak egin ahalean. Beraz, ezin esan material hauen programan eduki esanguratsutzat hartzen denik.
- Datuen arabera, “Aisa” da hiru materialetan osagai estrategikoa modu zabalenean jorratzen duena. Komunikazio-estrategien artean hauek sustatzen ditu: planifikazio-estrategiak (%4), kontrol-estrategiak (%8), eta ebaluazio-estrategiak (%12). Ikaskuntzarako estrategien artean, beste hauek bideratzen ditu: memoria-estrategiak (%64), estrategia sozialak (%12) eta monitorizazio-estrategiak (%10).

Beste bietan bezalaxe, “Aisa” materialetan ere oroimen-estrategiak dira gehien bultzatzen direnak (%64). Izan ere, estrategia hauek gehien sustatzen dituen ikasmateriala da “Aisa”. Badu, hala ere, alde nabarmen bat beste biek alderatuta: oroimena esperientzia komunikatibo eta sozial esanguratsuetan ainguratzeko ahalegina dago. Izan ere, ikasleak gogoan gordetzen saiatuko diren hitz, enuntziatu eta arau gehienak ataza komunikatiboen testuinguruan azaldutakoak izango dira. Kasu honetan testuinguratzeak berebiziko garrantzia du.

6. Ondorio-bidetik

Hasieran esan dugunez, lan honen asmoa hauxe zen: ikertzen hastea HEOK-ak hiru urteotan nolako itzala izan duen ikasmaterialetan. Beti ere, hurrengo pausuak zein norabidetan ematea komeni den pentsatze aldera.

Hasiberrientzako materialek erakusten dute ez dagoela joera bateraturik: aztertutako hirurak argi samar ezberdintzen dira elkarrengandik.

Haatik, bildutako datuak oro har aztertzen baditugu, berehala ikusiko dugu ez dela jauzi handirik eman nahi izan eredu “zaharretik” eredu “berrira”; izan ere, oso garbi dago batez besteko datuak norantz lerratzen diren: eza-gutzaren, sistema linguistiko analitikoaren, produktuaren eta zuzentasunaren ardatzetara. Hala ere, ikusten dira gaitasun linguistikotik gaitasun komunikatiborantz mugitzeko ahaleginaren zantzu batzuk: testuinguratze nabarmenagoa, testuen erabilera, osagai funtzionalaren garrantzia...

Kurrikuluaren ezarpenaren prozesuan bi aldi aurreikusten zituen HEOK-ak. Lehen aldi batean, mugimendu batzuk espero ziren hizkuntzari buruzko ikuspegi berriek zabaltzen dituzten lerroetan barrena; “conti-

nuum” dikotomikoen modura irudikatzen diren espazio kontzeptual horien baitan, alegia. Bigarren aldi batean, ikuspegi estrukturalistak eta ikuspegi komunikatiboak “sintesi” dialektiko bat ekarri behar zuten. Ikusten al da “sintesi” hori hasiberrientzako materialetan?

Nekez baieztatu daiteke halakorik. “Ostalaritza” materialen ereduak aspal-diko eskuliburuena gogorarazten digu. “Aritu” ikasmaterialetan, bestalde, komunikaziorako ezinbesteko diren hainbat aldagairen hutsa ikus liteke nabarmen. Aisa”, azkenik, komunikazioaren aldeko apustu berri-tzaile ausarta da, hizkuntzaren sistemari buruzko ezagutzak sendotzeko baliabideak faltako lituzkeena. Horrenbestez, lan hauetan gehiago ikus-ten dira hiru mugarri, planteamendu integratu eta integral baten aldeko apustua baino.

Haatik, sintesi berri horretarako osagaiak hortxe ditugula ematen du. Hizkuntzari buruz egun baliatzen den ikuskerak balioztatzen dituen ideia, irizpide eta kontzeptu gehienak hiru material hauen proposamene-tan ikusi ahal dira barreiaturik; sakabanatuta, hala ere.

Oraindik ez da, beharbada, guztiz asmatu trebetasun linguistikoek barne hartzen dituzten mekanismoak integratzen ikas-prozesuaren lehen etapa honetan. Oraindik ez dugu oso argi ikusten nola heldu komunikazioaren osagai soziolinguistikoei eta soziokulturalei etapa honetan. Osagai estra-tegikoa ere, ez dugu ondu askorik; ikaskuntza esplizitua eta implizitua bateratzeko ere zailtasunak ditugu... Baina, datuei begiratuta, hazia ereinda dagoela ematen du.

Oraindik herritar asko daude euskaraz ez dakitenak. Gainera, ez dago zertan pentsaturik ikasle hasiberrien kopuruak behera egin behar duenik; alderantziz, ugaritu egingo direla ematen du. Merezi du, hortaz, bide honetan ahalegin berri bat egitea, euskararen mundura hurbiltzea eraba-kitzen duenari ikaskuntzarako eredu eroso, malgu eta eraginkorra eskaintzeko ahalegina.

Aztertu ditugun hiru materialetan jorratua da, bakoitzean modu batera, HEOK-ak zabaldu zuen bide berri hau. Ea norbaitek hartzen dien leku-koa eta egiten duen beste urrats bat euskararen mundua ikasle hasiberriei beren buruan eratzen laguntzeko ahalegin horretan. Ez du erronka maka-la izango esku artean; baina bai zeregin joria eta aberasgarria. Seguru.

Bibliografia

Alderson, J. 2002. *Assessing reading*. Cambridge: Cambridge University Press.

Areizaga, E. 1995. *Dos décadas de enseñanza del español como lengua extranjera a adultos en sus materiales*. Doktore-tesia (PhD). Bilbo: EHU.

Areizaga, E. 2002. *El componente cultural en la enseñanza de lenguas: elementos para el análisis y la evaluación del material didáctico*.

Fundación Infancia y Aprendizaje aldizkariaren eranskina.

Bachman, L. eta Palmer, A. 1996. *Language testing in practice*. Oxford: Oxford University Press.

Bastardas, A. 2003. *Lingüística general: elementos para un paradigma integrador desde la perspectiva de la complejidad*. Linred [www2.uah.es/lin-red].

- Breen, M. eta Candlin, C.** 2001. The essentials of a communicative curriculum in language teaching. In: D. Hall y A. Hewings, ed. 2001. *Innovation in English language teaching*. Londres: Routledge, 9-26.
- Buck, G.** 2001. *Assessing listening*. Cambridge: Cambridge University Press
- Canale, M. y Swain, M.** 1980. Theoretical bases of communicative approaches to second language teaching and testing. *Applied Linguistics* 1, 1-47.
- Carter, R. eta Nunan, D.** 2001. *The Cambridge guide to teaching English to speakers of other languages*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Cushing, S.** 2002. *Assessing writing*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Dörnyei, Z. eta Murphey, T.** 2003. *Group dynamics in the language classroom*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Doughty, C. eta Long, M. H.** 2003. *The handbook of second language acquisition*. Hong Kong: Blackwell.
- Ellis, R.** 2005. Instructed second language acquisition. A literature review. Zelanda Berria: Ministry of Education.
- Escandell, M. V.** 1996. *Introducción a la pragmática*. 1. argitalpena. Bartzelona: Ariel.
- Escandell, M. V.** 2006. *Introducción a la pragmática*. 2. argitalpena (zuzendua eta osatua). Bartzelona: Ariel.
- Europako Kontseilua,** 1996. *Common European Framework of Reference for Languages, Learning, teaching, assessment*. Euskaraz, honako helbidean eskuragarri:
http://www.habe.org/pdf/erreferentzi_markoa.pdf.
- Ezeiza, J.** 2004. *La Carta de Navegación para la enseñanza de lenguas. Cuestionario para el análisis de materiales de enseñanza a la luz de los criterios propuestos por el Marco común europeo de referencia*. Ikasketa Aurreratuen Diploma eskuratzeko ikerketa-memoria. Madril: Antonio de Nebrija Unibertsitatea. Hizkuntza Aplikatuena Saila. HABE-ren liburutegian eskuragarri.
- Ezeiza, J.** 2005a (argitaratze-bidean). *NABIKAR 2004: Una Carta de Navegación para el análisis de materiales de enseñanza de lenguas basada en los principios y postulados del "Marco común europeo de referencia"*. [AESLA-ren nazioarteko kongresuaren aktak]. Palma: Universitat Illes Balears.
- Ezeiza, J.** 2005b (argitaratze-bidean). *Analizar y comprender la topografía de los manuales para la enseñanza de lenguas. Algunas claves para su uso creativo* In: N. Sans y L. Miquel, coord. *Didáctica del español como lengua extranjera-7* [Expolingua nazioarteko kongresuaren aktak]. Madril: Fundación Actilibre.
- Ezeiza, J.** 2006a (argitaratze-bidean). "Cuaderno Mayor" *Una herramienta para auditar la topografía configuracional de los materiales de enseñanza de lenguas en perspectiva de síntesis*. [AESLA-ren nazioarteko kongresuaren aktak]. Madril: UNED.
- Ezeiza, J.** 2006b (prestabidean). *Analizar y comprender la topografía configuracional de los materiales de enseñanza de lenguas en una perspectiva de síntesis*. Doktore-tesia (PhD). Madril: Antonio de Nebrija Unibertsitatea.
- Frodesen, J. eta Holten, C.** eds. 2005. *The power of context in language teaching and learning*. Boston: Thomson-Heinle.
- Gutiérrez, S.** 2002. *De pragmática y semántica*. Madril: Arco/Libros.
- HABE.** 1999. *Helduen euskalduntzearen oinarriko kurrikulua*. Gasteiz: HABE
- Hinkel, E.** ed. 2005. *Handbook of research in second language teaching and learning*. Mahwah, N.J.: Lawrence Erlbaum Associates.
- Hutchinson, E.** 1996. *What do teachers and learners actually do with textbooks? Teacher and learner use of a fisheries-based ELT textbook in Philippines*. Doktore-tesia (PhD). Lancaster University.
- Jorba, J., Gómez, I. eta Prat, À.** (eds.), 2000. *Hablar y escribir para aprender. Uso de la lengua en situación de enseñanza-aprendizaje desde las áreas curriculares*. Bartzelona: Síntesis.
- Lantolf, J. P.** 2001. El aprendizaje de una segunda lengua como comunicación: una perspectiva sociocultural, en la lengua, vehículo cultural multidisciplinar. In: Instituto Superior de Formación del Profesorado, 2001. *La lengua,*

- vehículo cultural multidisciplinar*. Madrid: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 82-95.
- Lantolf, J.** 2004. Sociocultural Theory and second and foreign language learning. An overview of Sociocultural Theory. In: k. Van Esch eta O. St. John, ed. 2004. *New insights into foreign language learning and teaching*. Frankfurt: Peter Lang, 13-34
- Lantolf, J.** (ed.), 2000. *Sociocultural Theory and second language learning*. Oxford: Oxford University Press.
- Larsen-Freeman, D.** 2003. *Teaching language. From grammar to grammaring*. Kanada: Newbury house.
- Leaver, B., Ehrman, M. eta Shekhtman, B.** 2005. *Achieving success in second language acquisition*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Littlejohn, A.** 1992. *Why are ELT materials the way they are?* Doktore-tesia (PhD). Lancaster University.
- Llobera, M.** (koord.), 1995a. *Competencia comunicativa. Documentos básicos en la enseñanza de lenguas extranjeras*. Madrid: Edelsa..
- Llobera, M.** 1995b. Discurso generado y aportado en la enseñanza de lenguas extranjeras. In: M. Siguán, coord. *La enseñanza de la lengua por tareas. XVIII Seminario sobre "lenguas y educación"*. Bartzelona: Horsori, 17-38.
- Llobera, M.** 1998. Ideaciones sobre la didáctica de lenguas extranjeras y segundas: consideraciones sobre un cambio de paradigma. In: A. Mendoza, coord. 1998. *Conceptos clave en didáctica de la lengua y la literatura*. Bartzelona: SEDLL/ ICE de la UB / Horsori, 369-382.
- Long, M.** 2006. *Second language needs analysis*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Luoma, S.** 2004. *Assessing speaking*. Cambridge: Cambridge University Press
- Macaro, E.** 2003. *Teaching and learning second language. A review or recent research*. 1ª edición. New York: Continuum.
- Maldonado, M.** 2003. *Texto y comunicación*. Madrid: Editorial Fundamentos
- Martín Peris, E.** 1996. *Las actividades de aprendizaje en los manuales de español como lengua extranjera*. Tesis doctoral (PhD). Bartzelona: Universitat de Barcelona. Helbide honetan: <http://www.sgci.mec.es/redele/biblioteca/martin.htm>.
- McGrath, I.** 2002. *Materials evaluation and design for language teaching*. Edimburgo: Edinburgh University Press
- McGroarty, M. eta Taguchi, N.** 2005. Evaluating comunicativeness of EFL textbooks for japanese secondary schools. In: J. Frodesen eta C. Holten, ed. 2005. *The power of context in language teaching and learning*. Boston: Thomson/Heinle, 211-224.
- McLaren, N., Madrid, D. eta Bueno, A.** 2006. *TELF in secondary education*. Granada: Universidad de Granada.
- Moran, P.** 2001. *Teaching Culture*. Kanada: Newbury house.
- Nunan, D.** (ed.) 2003. *Practical English language teaching*. Nueva York: McGraw Hill.
- Oxford, R.** 1990. *Language learning strategies. What every teacher should know*. Boston: Heinle y Heinle.
- Purpura, J.** 2003. *Assessing grammar*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Richards, J. eta Renandya, W.** (ed.) 2002. *Methodology in language teaching. An anthology of current practice*. New York: Cambridge University Press
- Sánchez Lobato, J. eta Santos Gargallo, I.** (zuzendariak), 2004. *Vademécum para la formación de profesores. Enseñar Español como segunda lengua o lengua extranjera*. Madrid: SGEL.
- Savignon, S.** 1983. *Communicative competence: theory and classroom practice*. Reading, M.A.: Addison-Wesley.
- Savignon, S.** 1993. Communicative language teaching: the estate of the art. In: S. Silberstein, ed. 1983. *State of the art TESOL essays*. Alexandria VA.: TESOL.
- Savignon, S.** 2004. Language, identity, and curriculum design: communicative language teaching in the 21st century. In: K. Van Esch eta O. St. John, ed. 2004. *New insights into foreign language learning and teaching*. Frankfurt: Peter Lang, 71-88.

Savignon, S. 2005. Communicative language teaching: strategies and goals. In: E. Hinkel, ed. 2005. *Handbook of research in second language teaching and learning*. Mahwah, N.J.: Lawrence Erlbaum Associates, 635.

Tomlinson, B. (ed.) 1998. *Materials development in language teaching*. Cambridge: Cambridge University Press.

Tomlinson, B. (ed.) 2003. *Developing materials for language teaching*. 1ª edición. Londres: Continuum.

Van Lier, L. 1996. *Interaction in the language curriculum. Awareness, autonomy & authenticity*. Londres: Longman.

Eranskina: *Emitza xehekatuak*

1. Taula: Ikaskuntzaren osagai pertsonala

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Implikazio pertsonala: ikasleen aurreko ezagutzak, esperientziak eta interesak baliatzen dira.	40	20	62	40,6
Implikazio pertsonala: ekarpen pertsonalak berariaz eskatzen dira.	32	10	76	39,3
Ikas-estiloa: Memoria ardatz duten jarduerak	44	65	12	40,3
Ikas-estiloa: Jarduera analitikoak	40	25	46	37
Ikas-estiloa: Jarduera komunikatiboa	16	0	38	18
Ikas-estiloa: Aldagai emozionalak barne hartzen dituzten jarduerak.	0	0	4	1,3
Ikas-estiloa: Ikaskuntza kontzeptuala bultzatzen duten jarduerak.	25	65	12	34
Ikas-estiloa: Imitazioa oinarri duten jarduerak.	12	35	8	18,3
Ikas-estiloa: Ekintza ardatz duten jarduerak	51	0	72	41
Ikas-estiloa: Sormena barne hartzen duten jarduerak	12	0	4	5,3
Ikasleen nortasuna: Ikasleen baloreak, sinismenak, munduari buruzko ikuspegia... jokoan jartzen dira.	0	0	8	2,6

2. Taula: Ikaskuntzaren osagai soziala

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Elkarreragin-ereduak: Banaka edota irakaslearen gidaritzapean ebazteko jarduerak.	96	95	70	87
Elkarreragin-ereduak: Binaka edota talde txikian ebazteko jarduerak.	4	5	20	9,7
Lankidetzak: Ikaskideei arreta jartzea eskatzen duten jarduerak.	20	10	24	18

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Lankidetz a: Elkarreragina / negoziazioa eskatzen duten jarduerak.	0	0	24	8
Lankidetz a: talde-dinamikaren gaineko gogoeta pizten dutenak.	0	0	0	0
Identitate sozio-kulturala : Jatorrizko kulturaren inguruko informazioa jokoan jartzen dutenak.	0	0	8	2,7
Identitate sozio-kulturala : Xede kulturaren inguruko informazioa jokoan jartzen dutenak.	20	10	0	10

3. Taula: Komunikaziorako eta ikaskuntzarako testuingurua

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Irudi-motak : marrazkiz lagundutako jardueren kopurua	20	40	16	25,3
Irudi-motak : Argazkiez lagundutako jardueren kopurua	12	15	64	30,3
Irudi-motak : Irudi dinamikoak baliatzen dituzten jardueren kopuruak.	0	0	12	4
Irudien zeregina : funtzio linguistikoa / paratestuala.	24	40	32	33
Irudien zeregina : testuinguru bat eratzea edota gaia jartzea.	20	15	60	31,6
Irudien edukia : pertsonak, lekuak edota objektuak.	16	20	28	21,3
Irudien edukia : ekintzak, gertakariak edota elkarreragin sozialak.	4	40	75	39,6
Irudien edukia : orotariko erreferentzia kulturalak.	20	12	60	30,6
Erabilera esparrua : lagunartekoa, familiarartekoa, kideen artekoa... ..	16	10	32	19,3
Erabilera esparrua : lanekoa, publikoa... ..	44	35	36	38,3
Komunikazioaren xedea : harreman sozialak.	8	20	40	22,6
Komunikazioaren xedea : berriemailea.	64*	10	60*	44,6
Komunikazioaren xedea : pertsuasiboa.	4	0	0	1,3
Aldagai komunikatiboak : lekuak, momentuak, gertakariak..	18	45	32	31,6
Aldagai komunikatiboak : pertsonak, rolak, ekintzak.	66	45	80	63,6
Diskurtso-mota : fitzak edo testuak osatu.	56**	40	56**	50,6
Diskurtso-mota diskurtso jarraitua.	12	10	12	11,3
Diskurtso-mota diskurtso elkarreragilea.	8	30***	44***	27,3

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Aldagai kognitiboak: memoria baliatu.	60	50	30	46,6
Aldagai kognitiboak: arauak eta ereduak baliatu.	72	70	40	60,6
Aldagai kognitiboak: errepikapena edota imitazioa.	84	90	36	70
Aldagai kognitiboak: hipotesiak eta ebazpenak.	28	10	52	30
Aldagai kognitiboak: sormena, arriskuak hartzea.	12	8	64	28

***Aditu:** %40 txandaka egitekoa eta %14 elkarreragilea; **Aisa:** % 16 txandaka egitekoa eta% 44 elkarreragilea).

****Aditu:** ulermen-jarduerak, gehienbat; **Aisa:** ekoizpen-jarduerak, gehienbat.

*****Ostalaritza:** gehienbat, elkarrizketa gidatuak; **Aisa:** gehienbat, ataza komunikatibo esanguratsuak.

4. Taula: Komunikaziorako eta ikaskuntzarako testuingurua

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Hizkuntzaren erabilera: praktika mekanikoa.	32	20	12	21,3
Hizkuntzaren erabilera: praktika testuinguratua.	12	50	32	31,3
Hizkuntzaren erabilera: praktika sasi-komunikatiboa.	48	30	12	30
Hizkuntzaren erabilera: komunikazio esanguratsua.	0	0	36	12
Informazioaren kudeaketa: informazioa ulertzea.	52	25	20	32,3
Informazioaren kudeaketa: informazioa eskuratzea.	0	0	12	4
Informazioaren kudeaketa: informazioa antolatzea.	0	15	28	14,3
Informazioaren kudeaketa: informazioa aztertzea eta interpretatzea.	0	20	20	13,3
Informazioaren kudeaketa: informazioa trukatzea.	0	0	20	6,6
Ikaskuntzaren (auto)erregulazioa: hasierako diagnosti- koa.	0	20	20	13,3
Ikaskuntzaren (auto)erregulazioa: helburuen aurkezpena.	24	55	40	39,6
Ikaskuntzaren (auto)erregulazioa: praktika.	56	80	20	52
Ikaskuntzaren (auto)erregulazioa: ebaluazioa, feedbacka.	0	0	12	4
Eragiketa kognitiboak: gogoan gorde, zerrendak egin, kopiatu... ..	40	50	24	38
Eragiketa kognitiboak: antzematea, esanahia igartzea, osa- tzea... ..	28	30	44	34
Eragiketa kognitiboak: eskemen eraikuntza, arauak balia- tzea... ..	0	10	0	3,3

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Eragiketa kognitiboak: ikerketa, saiakera, alderatzea, praktika... ..	8	0	12	6,6
Eragiketa kognitiboak: hizkuntzaren erabilera sortzailea, ebazpenak... ..	0	0	20	6,6
Eragiketa kognitibo-linguistikoak: zerrendatu	0	20	40	20
Eragiketa kognitibo-linguistikoak: antolatu eta sailkatu. ...	8	15	4	9
Eragiketa kognitibo-linguistikoak: alderatu	0	30	20	16,6
Eragiketa kognitibo-linguistikoak: asmatu	16	0	12	9,3
Eragiketa kognitibo-linguistikoak: azaldu.	28	0	12	20

5. Taula: Komunikazio-jarduerak

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Entzumena barne hartzen duten jardueren kopurua.	24	25	24	24,3
Entzumena_jarduera-mota: sentsibilizazio-jarduera.	16	20	0	12,0
Entzumena_jarduera-mota: ulermen zehatzeko jarduera. .	8	5	12	8,3
Entzumena_jarduera-mota: entzumen integratua (holistiko- koa).	0	0	12	4,0
Entzumena_ikaslearen rola: solaskide (ikaskideen azalpen- netan, elkarrizketetan...)	0	0	8	2,7
Entzumena_ikaslearen rola: entzuleriaren kide.	24	10	20	18,0
Entzumena_xedea: berriemailea.	24	5	20	16,3
Entzumena_xedea: inputean ezaugarriak antzematea.	0	15	0	5,0
Entzumena_entzute-mota: Hartzaila.	24	15	20	19,7
Entzumena_entzute-mota: kritikoa.	0	0	5	1,7
Entzumena_prozesua: helburuak ezartzea.	24	25	24	24,3
Entzumena_prozesua: aurrezagutzak aktibatzea.	0	0	21	7,0
Entzumena_prozesua: informazioa modu gidatuan haute- matea (hainbat etapatan).	24	0	0	8,0
Entzumena_prozesua: ulertutakoa ikaskideekin alderatzea eta ondorioak bateratzea.	0	0	12	4,0
Entzumena_azpitrebetasunak: xehetasunak ulertzea.	20	10	20	16,7
Entzumena_azpitrebetasunak: inferentziak egitea.	0	0	4	1,3
Entzumena_azpitrebetasunak: gogoan gordetzea.	4	15	0	6,3

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Irakurmena barne hartzen duten jardueren kopurua.	16	15	40	23,7
Irakurmena _jarduera-mota: sentsibilizazio-jarduera.	12	15	4	10,3
Irakurmena _jarduera-mota: ulermen zehatzeko jarduera.	4	0	32	12,0
Irakurmena _jarduera-mota: ulermen orokorreko jarduera.	0	0	4	1,3
Irakurmena _ikaslearen rola: egitura eta hitz jakinen esanahia argitu.	12	15	28	18,3
Irakurmena _ikaslearen rola: testua arakatzea eta aztertzea.	0	0	4	1,3
Irakurmena _ikaslearen rola: testutik informazioa erauztea.	4	0	4	2,7
Irakurmena _ikaslearen rola: testua interpretatzea xede komunikatibo baten arabera.	0	0	4	1,3
Irakurmena _xede: Ezaugarri formalei erreparatzea.	4	15	0	6,3
Irakurmena _xede: Datu zehatzak ulertzea.	16	0	32	16,0
Irakurmena _xede: Ideia nagusiak identifikatzea.	8	0	8	5,3
Irakurmena _irakurketa-mota: Ikasteko irakurri.	8	15	12	11,7
Irakurmena _irakurketa-mota: Testuaren edukiaz jabetzeko irakurri.	4	0	0	1,3
Irakurmena _irakurketa-mota: Informazioa eskuratzeko irakurri.	0	0	24	8,0
Irakurmena _irakurketa-mota: Irakurketa funtzionala (instrukzioak, inprimaki bat...).	8	0	0	2,7
Irakurmena _prozesua: helburuak ezartzea.	12	0	24	12,0
Irakurmena _prozesua: aurrezagutzak aktibatzea.	0	0	12	4,0
Irakurmena _azpitrebetasunak: ulertutakoa egiaztatu.	16	0	12	9,3
Irakurmena _azpitrebetasunak: ulertutakoa alderatu eta bateratu.	0	0	8	2,7

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Idazmena barne hartzen duten jardueren kopurua.	48	15	20	27,7
Idazmena _jarduera-mota: lexikoa edota gramatika praktikatzeko jarduera.	48	15	12	25,0
Idazmena _ikaslearen rola: dokumentazio edo erregistro lana (zerrendak, kopiaketa..).	48	0	20	22,7
Idazmena _ikaslearen rola: itzultzailea.	48	0	0	16

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Idazmena _xede a: Ikasteko idatzi.	28	15	16	19,7
Idazmena _xede a: Gogoan gordetzeko idatzi.	20	0	16	12,0
Idazmena _idazkuntza-mota : Hitz edota enunziatu solteak idatzi.	40	15	20	25,0
Idazmena _idazkuntza-mota : Testu bat osatu.	8	0	0	2,7
Idazmena _azpitrebetasunak : Mezua planifikatu	36	0	20	18,7

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Mintzamena barne hartzen duten jardueren kopurua.	8	0	44	17,3
Mintzamena _jarduera-mota : edukien praktika kontrolaturako ahozko jarduera.	8	0	8	5,3
Mintzamena _jarduera-mota : jarduera komunikatiboa, baina muga formalak dituena.	0	0	8	2,7
Mintzamena _jarduera-mota : ataza komunikatiboa.	0	0	28	9,3
Mintzamena _elkarreragin-eredua : ikaslea-irakaslea	8	0	4	4,0
Mintzamena _elkarreragin-eredua : ikaslea-talde zabala ...	0	0	16	5,3
Mintzamena _elkarreragin-eredua : ikaslea-ikaslea (bina-ka edo talde txikietan)	0	0	20	6,7
Mintzamena _xede a: Testu baten edukiaren berri eman.	8	0	4	4,0
Mintzamena _xede a: Informazioak esperientziak, iritziak... trukatzea.	0	0	28	9,3
Mintzamena _xede a: Irudi bati buruz jardutea.	0	0	4	1,3
Mintzamena _komunikaziorako baldintzak : Informazio-hutsarte dago.	8	0	28	12,0
Mintzamena _komunikaziorako baldintzak : Inplikazio pertsonala eskatzen da.	0	0	24	8,0
Mintzamena _komunikaziorako baldintzak : Arian-arian gertatuko da komunikazioa.	8	0	24	10,7
Mintzamena _komunikaziorako baldintzak : Solaskideek erantzun ahal dute.	0	0	12	4,0
Mintzamena _komunikaziorako baldintzak : Baliabide linguistiko jakinak erabili behar dira.	8	0	4	4,0
Mintzamena _prozesua : helburuak ezartzea.	8	0	32	13,3
Mintzamena _prozesua : jardunaren planifikazioa.	8	0	8	5,3

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Mintzamina _prozesua: ikaskideekin alderatu.	8	0	20	9,3
Mintzamina _prozesua: jarduna errepikatzeko aukera.	8	0	12	6,7
Mintzamina _prozesua: formari arreta jarri beharra.	8	0	8	5,3
Mintzamina _azpitrebetasunak: diskurtsoaren edukia prestatu eta antolatu.	8	0	12	6,7
Mintzamina _azpitrebetasunak: diskurtsoa gidatu.	0	0	4	1,3
Mintzamina _azpitrebetasunak: diskurtso batean esku hartu bat-batean.	0	0	12	4,0
Mintzamina _azpitrebetasunak: diskurtso batean esku hartu txanda dagokionean.	8	0	12	6,7

6. Taula: Hizkuntz laginak eta ikasleen ekoizpenak

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Lagin datziak: hitz, egitura edota esapideen zerrendak.	16	60	0	25,3
Lagin datziak: osatu beharreko eskemak, mapa semantikoak, taulak... ..	0	0	44	14,7
Lagin datziak: dokumentu artifizialak.	44	0	0	14,7
Lagin datziak: dokumentu egokituak, moldatuak.	0	10	16	8,7
Lagin datziak: ahozko dokumentuen transkripzioak.	8	15	4	9,0
Lagin datziak: benetako dokumentuak.	0	0	12	4,0
Ikusentzutezko laginak: forma linguistikoak edota fonetika lantzekoak.	36	0	4	13,3
Ikusentzutezko laginak: simulazioak (antzeztuak).	24	15	20	19,7
Ikusentzutezko laginak: forma linguistikoak edota fonetika lantzekoak.	0	0	4	1,3
Eragiketak: oharrak hartu, kopiatu	20	55	36	37,0
Eragiketak: buruz ikasi	0	10	0	3,3
Eragiketak: itzuli	0	25	0	8,3
Eragiketak: testua manipulatu.	0	0	12	4,0
Eragiketak: edukiaren berri eman	28	0	16	14,7
Eragiketak: edukia aztertu, komentatu	0	0	16	5,3
Ikasleek sortu beharreko laginak: hitzak edota enuntziatu laburrak.	36	0	60	32,0

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Ikasleek sortu beharreko laginak: esaldiak edo enuntziatuak birformulatu.	12	0	12	8,0
Ikasleek sortu beharreko laginak: esaldiak edo enuntziatuak itzuli.	0	15	0	5,0
Ikasleek sortu beharreko laginak: elkarreraginean eraikitako diskurtsoa.	0	0	8	2,7
Media: enpresa-komunikazioa.	0	0	8	2,7
Media: publizitatea.	0	0	4	1,3
Media: bideo didaktikoa.	0	0	16	5,3
Euskarriak: eskemak, kutxa hutsak, taulak... ..	0	0	44	14,7
Euskarriak: marrazkiak, eszenatokiak, marko komunikatiboak... ..	8	40	24	24,0
Euskarriak: osatu gabeko testuak, ereduak, ideia-zerrendak... ..	36	0	28	21,3
Hizkuntza-unitatea: hitzak eta esapideak.	40	35	44	39,7
Hizkuntza-unitatea: perpausak.	32	20	12	21,3
Hizkuntza-unitatea: enuntziatuak.	16	25	24	21,7
Hizkuntza-unitatea: testuak.	4	20	24	16,0
Testu-mota: deskribapena.	20	0	8	9,3
Testu-mota: azalpena.	8	10	32	16,7
Testu-mota: instrukzioa.	0	15	0	5,0
Testu-mota: elkarrizketa.	28	40	24	30,7
Testuaren edukia: forma linguistikoak.	40	70	40	50,0
Testuaren edukia: elkarreragin komunikatiboak.	24	20	24	22,7
Testuaren edukia: informazioa.	4	10	8	7,3
Ahotsak: igorle bakarra.	0	0	12	4,0
Ahotsak: bi igorle elkarreraginean.	8	20	20	16,0
Ahotsak: bi igorle baino gehiago.	4	0	4	2,7
Funtzio didaktikoa: azterketa formala.	8	70	12	30,0
Funtzio didaktikoa: eredu bezala.	24	20	8	17,3
Funtzio didaktikoa: trebetasunak lantzeko euskarri gisa.	4	0	12	5,3
Funtzio didaktikoa: hizpide gisa.	0	0	24	8,0
Testuen gaineko eragiketak: interpretazioa.	8	0	24	10,7

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Testuen gaineko eragiketak: asoziazioa (testuak-irudiak; testuak elkarren artean...).	4	35	20	19,7
Testuen gaineko eragiketak: irizpide jakinei erantzuten dieten testuak edo pasarteak hautatu.	40	10	16	22,0
Testuen gaineko eragiketak: analisia (ezaugarri formalen inguruko gogoeta).	0	15	0	5,0
Testuen gaineko eragiketak: laburpena, sintesia edota bir-formulazioa.	12	15	16	14,3

7. Taula: Gaitasun komunikatiboaren osagaiak

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Osagai linguistikoa: ezagutza gramatikala.	44	30	16	30,0
Osagai linguistikoaren lanketa: gogoan gorde, errepikatu, manipulatu... ..	24	30	10	21,3
Osagai linguistikoaren lanketa: arauen azalpen eta aplikazioaren bidez.	0	30	10	13,3
Osagai linguistikoaren lanketa: jarduera komunikatibo egituratuaren bidez.	20	0	10	10,0
Osagai diskurtsiboa: ezagutza testuala.	16	20	8	14,7
Osagai diskurtsiboaren lanketa: gogoan gorde, errepikatu, manipulatu... ..	0	20	0	6,7
Osagai diskurtsiboaren lanketa: modu induktiboan, ereduak aztertuz... ..	0	0	8	2,7
Osagai diskurtsiboaren lanketa: lanketa testuinguratuaren bidez.	16	0	0	5,3
Osagai funtzionala: hizketa-egintzak, komunikazio estrategiak eta esapide funtzionalak.	44	50	48	47,3
Osagai funtzionalaren lanketa: irakaskuntza esplizituaren eta praktikaren bidez.	20	50	48	39,3
Osagai funtzionalaren lanketa: modu induktiboan, ereduak aztertuz... ..	24	0	0	8,0
Osagai sozial eta kulturala: ezagutza soziolinguistikoa.	24	0	0	8,0
Osagai sozial eta kulturala: ezagutza kulturala.	28	10	16	18,0
Osagai sozial eta kulturalaren lanketa: irakaskuntza esplizituaren bidez.	0	10	0	3,3

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Osagai sozial eta kulturalaren lanketa: lanketa testuinguratuaren bidez.	28	0	16	14,7
Osagai lexiko-semantikoa: hiztegia, sare semantikoak, adierazle funtzionalak, esapideak... ..	44	50	64	52,7
Osagai lexiko-semantikoaren lanketa: irakaskuntza esplitziatuaren bidez.	20	0	32	17,3
Osagai lexiko-semantikoaren lanketa: modu induktiboan, inferentziak eginez... ..	24	30	0	18,0
Osagai lexiko-semantikoaren lanketa: lanketa testuinguratuaren bidez.	0	20	32	17,3

8. Taula: Estrategiak

Adierazleak	Jardueren %			Batez- beste
	Aditu	Ostalaritza	Aisa	
Ikaskuntzarako estrategiak: oroimen-estategiak.	8	45	64	39,0
Ikaskuntzarako estrategiak: monitorizatzea, saitze funtzionala.... ..	64	45	10	39,7
Ikaskuntzarako estrategiak: estrategia sozialak (galderak egin, lankidetz...)	0	0	12	4,0
Komunikazio-estategiak: planifikazio-estategiak.	0	0	4	1,3
Komunikazio-estategiak: garapen- eta kontrol-estategiak.	56	0	8	21,3
Komunikazio-estategiak: ebaluazio-estategiak.	0	0	12	4,0
Estrategien lanketa: lanketa testuinguratua.	64	90	86	80,0